

CAF eta mendeko iruzurra

Koldo Sagasti

Pasa den astean Donald Trumpek Palestinako gatazka, ustez, behin betiko konpontzeko egitasmoa aurkeztu zuen. “Mendeko Akordioa” izenez bataiatu zuten ekimena alde bakarreko sinatzaileek. “Mendeko Iruzurra”, berriz, zorigaiztoko ibilbide orriaren biktimek. AEBetako mandatararen suhiak hiru urtez kozinatutako planak, funtsean, gaur egungo *statu quo* ilegalari legezkotasun bermea ematea du helburu: zazpi hamarkadaz indarrez bereganatutako eremuak onartzea, orain arteko okupazioa ontzat ematea, eta nazioarteko legediak ezartzen duenaren gainetik, estatu palestinar bat onartzea

lurralde historikoaren %12an eta zati isolatuetan. Proiektu horren parte erabakigarria da NBek onartutako mugetatik harago ezarritako kolonia ilegalak izatez anexionatzea. Nazioarteko zuzenbideak gerra krimenez hartzen du indar okupatzaileak eremu okupatueta populazioa mugiaraztea, baina AEBetako presidentea eta haren suhia nazioarteko legediaren gainetik dauden mundu zoro honetan hori huskeria da. Nazioarteko itunek, halaber, debekatzen dute kolonoen kokaleku horiek betikotuko dituzten azpiegitura iraunkorrak eraikitzea, eta horretan ezinbesteko esku-hartzea dauka Euskal Herri-

ko enpresa batek, CAFek. Beasaingo konpainiari Jerusalem Ekialdean, alegia, muga ofizialetik harago dauden koloniak hirigunearekin lotuko dituen tranbia eraikitzeke kontratua esleitu diote. Nazioarteko Legediarekin talkan, kokaleku ilegalak anexionatu eta auzune palestinarrek baztertuko ditu trenbideak. Gipuzkoako faktoriak munduko beste hamaika enpresak errefusatu duten kontratua sinatuko balu, erabaki historikoa hartuko luke: azken mendeko historiako iruzur handienetako baten partaide izatea. 1897an Theodor Herzlrek mamitu zuen eta 2020an Donald Trumpek burutu nahi duen mendeko iruzurra. •

Tokiz kanpo

Oihane Larretxea
de la Granja

Egia honakoa da: ez dut whatsapp talde honetan egon nahi. Polita izan zen garai hura, nire bizitzan ederrenetakoa, asko konpartitu genuen eta oroitzapen onak, oso onak ditut, baina etapa hura amaitu zen eta josi genituen loturak askatu ziren. Aspaldi. Desegin arte. Urte mordoa igaro da eta, bat-batean, honetaz eta besteaz jakitea (baten bati buruz ezer jakingo ez banu, hobeto) modu artifizioso batean... Hala sentitzen dut. Eta halaxe esan nahi nizueke. Baina ez da politikoki zuzena.

Ez da itxurosoa. Nola alde egin modu «elegante» batean? Orduan beste buruhauste handiago bat sortzen zait: inor ez mintzeagatik eta *figura di merda* bat ez egiteagatik, ez ote naiz nire burua derigortzen ari nahi ez dudana leku batean egotera? Horrek zinez izorratzen nau. Egoera surrealista bizi izan ditut. Taldekide bat ezkontzera doala eta gonbidatu egiten nauela (!!). Jakina, norekin ez dakit. Ene... Albistea aprobetxatu du X-k kontatzeko bera ezkondu zela, baita dibortziatu ere, eta «zorionez» haurrik

ez dagoela tartean. Hari horri eutsi dio Y-k eta iragarri digu semea espero duela udaberrirako (argazkia erantsi du noski, irrikaz dago-eta erakusteko). Zer erantzun jakin ez, eta isilik mantentzen naiz. Tokiz kanpo sentitzen naiz, ez da nire «tribua». Eta hor dago koska: baten batek zure kontaktua sakatu du eta barruan zaude. Agian oker nago eta sinpleagoa da guztia. Adibidez: «Polita izan zen iraun zuen bitartean, ez zara zu, ni naiz...». Esan nahi dut: ni naiz arraroa? •